

Pilota



Aitor Elkorok igandeko finalean.

JAGOBA MANTEROLA

Elkoro: «Autokritikoa izan behar da»

Finalean «zuzendu daitezkeen huts batzuk» egin zituela adierazi du gipuzkoarrak

Aitor Ugalde / Donostia

IGANDEAN finala amaitu zenetik atsedena hartzeko beta gutxi izan du Aitor Elkorok. Bateko eta besteko konpromezuekin osatu ditu ordutik pasatu diren bi egunak. Behintzat gastronomiaz disfrutatzeke balio izan dio. «Asper-tu samar nengoen hainbeste pasta eta hainbeste arroz jateaz», adierazi zuen atzo aipatu irratian. Manomanistarako prestaketan, janaria ere begiratu du pilotari gipuzkoarrak. Horregatik eta egindako prestaketagatik lau edo bost kilo galdu ditu binakako txapelketatik.

Egindako txapelketarekin gustura dago, baina pena eman zion finala galtzeak. Baina ikasteko balio izan dio. «Finala ez nuen gaizki jokatu, baina hobeto jokatu nezakeen», esan zuen atzo. Oraindik bideoan partidua ikusi gabe «autokritikoa» izan behar dela dio. «Zuzendu daitezkeen huts batzuk egin nituen. Badakit hobetu beharra daukadala. Ea datorren urtean ilusio berarekin prestatzen naizen eta hor goian egotea lortzen dugun», zioen.

Badaki, ordea, datorren urtekoa ez dela bide erraza izango. «Elgetako ongi etorrian esaten zidaten datorren urtean txapela irabazi behar dudala. Baina hori oso konplikatu da. Urte guztiak desberdinak dira. Ilusio berare-

Finalaren bideoa ikusteko astirik ez du izan oraindik Aitor Elkorok. Baina ez du horren beharrik hainbat gauza ikusteko. Bere ustez, ez zuen gaizki jokatu, baina hobeto joka zezakeela adierazi zuen atzo Donostiako Herri Irratian egindako elkarrizketan. Orain, egun batzuetan atsedena hartu nahi du.

kin prestatuko naiz, baina agian gauzak ez dira nahi bezala aterako. Hor dago aurten Eugiri eta Belokiri gertatu zaiena».

Finala «disfrutatzeke eguna» dela adierazi zuen berriro ere. «Are gehiago jokatzeko nuen lehen urtea zelako, eta finalera heltzea sari handia delako». Bere ustez, finala «gogorra» izan zen, eta Atano III.a pilotalekuan bizi izan zen giroa «izugarria». «Partidua jendearengana heldu zen eta hori garrantzitsua da».

Giro horrek, ordea, eragina izan zuen berarengan. Ezin izan zen zentratu nahi bezala. «Nahi edo ez, bertan zegoen zaratak eragina izan zuen eta hasieran tentso egon nintzen», dio. Une txar hori gainditu egin zuen, ordea, eta horri garrantzi handia ematen dio. «10-4 galtzen ari nintzenez ez nuen behera egin, psikologikoki ondo eutsi nion eta aurretik ere jarri nintzen. Orduan zorte txarra izan nuen. Hori garrantzitsua da, tanto gutxigatik erabakitzen den final batean, zorteak eragin handia dauka».

Elkoro ez zen fidatzen pronos-

tikoez. «Ulertezina» zen, bere ustez, hain nabarmen pronostikoak bere alde egotea. Arretxeri beldur handia zion. «Arretxek partidu handia jokatu zuela banekien, finaletan maila ematen baitu. Nik maila handian jokatu beharra neukan irabazteko. Ez nuen hain ondo egin», zioen atzo.

Manomanista jokatzeko lasaitasuna hartu du • Manomanista nagusian hain paper ona egitearen gako urduritasuna menperatzea izan dela dio. «Orain bi urte Beloki, Errandonea, Arretxe eta horiekin aritu nintzen entrenatzen. Konturatu nintzen buruz buru joka neza-

keela. Nire arazoa izan da urduritasunak menperatu egiten ninduela. Buruz buru aurkaririk handiena, normalean, norbera izaten da». Lasaitasun hori «prestakuntzarekin eta entrenamenduekin» hartzen da Elkoro- ren iritziz.

Egun dagoen tokira heltzeko gakoak «lana eta ilusioa» izan dira bere ustez. «Inork ez dit ezer oparitu, lan egitearen poderioz lortu ditut gauzak». Berak jokoa izan duen hobekuntza bere kontratuan ere islatzea espero du. «Jaz kontratua sinatu nuen esan zidaten bakarrik binaka jokatzeko nuela. Eta egia zen, ordura arte ez bainuen ezer egin buruz buru. Aurten erakutsi dut edozein txapelketatan joka dezakedala. Uste dut hori aztertu egin behar dela», adierazi zuen.

Elgetako herriak egindako ongi etorria eskertu zuen Elkorok. «Izugarria izan zen igandekoa», zioen.

Konpetizioak ez du etenik

Aitor Elkorok, Fernando Arretxek bezala, ez du atsedena hantirik hartuko. Manomanista amaitu ondoren, datorren astetik aurrera Euskadiko Binakako Txapelketa jokatu dute biek. Elkorok, gainera, iaz Capellaneekin batera lortutako titulua defendituko du. Iazko finalean Eugi eta Arretxe gainditu zituzten Capellan eta Elkorok.

Euskadiko Txapelketaren hirugarren ekitaldia jokatu da aurten, egungo eskuzko pilotari onenekin. Gaur jakinaraziko dituzte jokatu dute biko-

teak. Badirudi zortzi bikote izango direla txapelketan, bi multzotan banatuta. Patxi Eugik aurten ez du jokatu, ukondoan min hartuta dago eta.

Gaurko ekitaldian, asteburuan Bergaran jokatu den Mendekostetako tornea aurreko da. Lau bikoteek jokatu dute. Horrez gain, Bergaran Bigarren Mailako Manomanistako finalerdien erreban-txak jokatu dira: Kokak Agirrerren aurka eta Olaizolak Gofii II.aren aurka. Irabazleek finala jokatu dute asteartean. X

Katxin Uriarte indartsu itzuli da

Neguko denboraldia Amerikako kantxetan jokatzeko pasatu ondoren, hasi dira euskal puntistak itzultzen. Felix, Elizegi eta Uriarte ari dira jada partiduak jokatzeko Euskal Herriko kantxetan. Itzultzen azkena Katxin Uriarte izan da. Astelehenean Gernikan jokatu zuen, eta erakustaldia eman zuen. Elizegik eta berak 35-23 irabazi zieten Konpari eta Goitiari.

Bilbao Jai Berri enpresak aurrera segitu nahi du

Palista garrantzitsuenean Eusko Basquerekin bi urterako kontratua sinatu badute ere, Bilbao Jai Berri enpresako arduradunek aurrera jarraitzen dute pala enpresa sortzeko daukaten egitasmoarekin. Enpresa berrian jokatu nahi duten palista profesional guztiei irekita jarraitzen dutela adierazi dute enpresatik.

Final-laurdenetan dira Herri Arteko Eskuzko Txapelketak

Bizkaiko txapelketan neurketak hauek izango dira final-laurdenetan: Urtuellak Sestao edo Mañariaren aurka jokatu du, Lezamak Mallabiaren aurka, Abadiñok Lekeitio- ren aurka eta Gernikak Bermeoren aurka. Sestaoren eta Mañariaren arteko kanporaketan Sestaok aurrera egin du, baina Mañariak inpugnatu egin du kanporaketa. Gipuzkoan kanporaketa hauek jokatu dira: Azkoitia Usurbilen aurka, Azpeitia Tolosaren aurka, Amezketa Zumarragaren aurka eta Zaldibia Donostiaren aurka.

Frantzia irabazle Trinketeko Sub'22 mailako Mundialean

Frantziako selekzioak urrezko hiru domina lortu ditu Arnedon (Errioxa) jokatu den mundial honetan. Eskuz banaka Frantziako Berasategik 40-13 irabazi zion Kubako ordezkariari; binaka, Gonzalez-Lissardik 40-11 Espainia ordezkatzeko zuten Agesta-Zabalzari; emakumezkoen paleta goman, Leiza-Alsouetek 30-11 Mexikoko ordezkariari. Argentinak urrezko bi domina lortu ditu: gizonezkoen paleta goman 25-2 irabazi zion Frantziako selekzioari Ortiz-Ortiz; eta paleta laruz, 40-20 Frantziako Elizondo-Giraudbitti. Espainiako selekzioak urrezko domina bakarra lortu du, xarean. Lopetegi-Artolak 45-43 irabazi zieten Frantziako selekzioari Celan-Sanglari.

Aitor Elkorok: «Urte guztiak desberdinak dira. Ilusio berdinarekin prestatuko naiz datorren urtean, baina agian gauzak ez dira nahi bezala aterako»